


Ebaluazioa – LH3

Matematika gaitasuna. 2. zatia

2020-2021





JARRAIBIDEAK

Proba honetan egoera ezberdinekin loturiko galderak erantzun beharko dituzu. Galderaren baten erantzuna ez badakizu, ez galdu denborarik eta joan hurrengora. **Irakurri arretaz galdera bakoitza.**

Galdera batzuetan lau erantzun ematen dizkizugu, baina haietako bat besterik ez da zuzena. Aukeratu erantzun zuzenaren ondoko letra. Ikus ezazu nola egin adibide honetan:

1. adibidea	
Zenbat hilabete ditu urte batek? Aukeratu erantzun zuzena.	
A.	2
B.	11
<input checked="" type="radio"/>	12
D.	17

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu X batekin lehenengo aukeratu duzuna eta inguratu erantzun zuzena marra biribil batez.

Ikusi adibide honetan nola lehenik A erantzuna aukeratu zen eta gero C.

1. adibidea zuzenketa egin eta gero	
Zenbat hilabete ditu urte batek? Aukeratu erantzun zuzena.	
<input checked="" type="radio"/>	2
B.	11
<input checked="" type="radio"/>	12
D.	17

Beste galdera batzuetan bi aukeren artean hautatu beharko duzu (egia ala gezurra, bai ala ez).

2. adibidea		
Marka ezazu X baten bidez ondoko esaldi hauek egia ala gezurra diren.		
	Egia	Gezurra
Urte batek 12 hilabete ditu.	X	
Urte batek 17 hilabete ditu.		X

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, zirrimarratu aukeratu nahi ez duzun erantzuneko X marka, eta idatz ezazu X beste laukitxoan. Ikus ezazu adibide hau; lehenik "Gezurra" aukeratu da, eta gero "Egia":

2. adibidea zuzenketa egin eta gero		
Esan ezazu X baten bidez ondoko esaldi hauek egia ala gezurra diren.		
	Egia	Gezurra
Urte batek 12 hilabete ditu.	X	X
Urte batek 17 hilabete ditu.		X

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna osatzeko (zenbaki edo hitz batekin) hutsunea betez. Erreparatu adibideari:

3. adibidea	
Zenbat hilabete ditu urte batek?	
Urte batek	<input type="text" value="12"/> hilabete ditu.

Erantzun bat aldatu nahi baduzu, ezaba ezazu eta garbi idatzi beste erantzuna.

3. adibidea zuzenketa egin eta gero	
Zenbat hilabete ditu urte batek?	
Urte batek	<input type="text" value="12"/> 17 hilabete ditu.

Galderaren batean beste era batera erantzun behar bada, hala adieraziko zaizu.

EZ JOAN HURRENGO ORRIALDERA HALA EGITEKO ESATEN DIZUTEN ARTE!

Wang Zhenyi, zientzialari ezezaguna



Wang Zhenyi zientzialaria Txinan jaio zen 1768an. Garai hartan, familia aberatsenetako gizonezkoek bakarrik jasotzen zuten hezkuntza. Emakumeek ez zuten prestakuntzarik jasotzen eta etxeko lanetan baizik ez ziren aritzen.


Emakume interesgarri horren bizitzako datu batzuk ezagutuko ditugu orain.

17

3CM4301

Zhenyi bizi zenean Txina inperio bat zen. Enperadoreen familiak Qing zuen izena. Familia inperial horren estandarteak (banderatxoak) **triangelu** forma du, eta alde bakoitzak **luzera desberdina** du.


Hauetako zein marrazki dagokio banderatxoari?




18

Qing dinastiaren armarriak estandar-tearen herensuge bera zuen marraztuta.

3CM4302

Begiratu irudiari, eta erantzun:  bezalako zenbat karratuk osatzen dute armarriaren azalera?



Gogoratu:



Armarriaren azalera




karratuk osatzen dute.

19

Jiangning izeneko Txinako hiri batean jaio zen Zhenyi. Aitatxi probintzia bateko gobernadorea zenez, haren familia aberats samarra zen eta bidaia asko egin ahal izan zituen.

3CM4303

Begiratu Txinako mapari eta Zhenyik bisitatu zituen hirietako batzuei.



Zenbat kilometro egin zituen, guztira, ibilbide horretan?



- A. 1850 km
- B. 2200 km
- C. 2350 km
- D. 3200 km

20

3CM4304

Bidaietako batean, Zhenyik Txinako Harresi Handia bisitatu zuen, inperioa babesteko balio zuena. 8850 metroko luzera du. Begira zein diren harresia bisitatzeko prezioak:



Prezioa	Helduak	Haurrak 4-9 urte
Garraioa bakarrik	14 €	9 €
Garraioa + Sarrera + Gidaria	30 €	9 €
Garraioa + Sarrera + Gidaria + Teleferikoa	55 €	28 €

4 urtetik beherakoak: dohainik

Amirak 8 urte ditu, eta Harresi Handia bisitatuko du aitarekin, amarekin eta 2 urteko anaiarekin. Aukera hau hautatu dute:

Garraioa + Sarrera + Gidaria + Teleferikoa


Zenbat ordainduko dute sarrerengatik?

- A. 37 € B. 69 € C. 138 € D. 166 €

21

3CM4305

Amira harresi handiari begira dago, eta jakin nahiko luke zer angelu-mota ikusten diren irudian. **Begiratu A angeluari (horia) eta B angeluari (arrosa), eta inguratu aukera zuzena biribil batez:**



- A. Bi angeluak zuzenak dira.
B. Bi angeluak kamutsak dira.
C. A angelua zuzena da eta B angelua kamutsa da.
D. A angelua kamutsa da eta B angelua zuzena da.

22

3CM4306

Zhenyik asko ikasi zuen etxean, liburu asko zeuzkatelako. Begiratu grafikoari (irakasgai bakoitzeko zegoen liburu-kopurua agertzen da), eta erantzun galderari.



Geometria	
Astronomia	
Medikuntza	
Poesia	

Zenbat liburu zeuden astronomiari buruz?

- A. 24
- B. 32
- C. 40
- D. 56


23

3CM4307

Zhenyiren aitatzik Astronomia irakatsi zion. Handitu zenean, Zhenyik eklipseak aztertu zituen.

Amirak egunkarian irakurri du gaur gauean ilargi-eklipse bat egonen dela. **Hamaikak laurden gutxitan** hasiko da.

Erloju hauetatik, zeinek markatzen du eklipsea hasiko den ordua?




24

Amirak agenda bat erosi du, pertsonaia ospetsuen esaldiak dituena.

3CM4308

Ekainaren 1ean bagaude eta **hiru aste barru** Mohamed lagunaren urtebetetzea izanen bada. **Zer egunetan da Mohameden urtebetetzea?**

- A. ekainaren 4an.
- B. ekainaren 8an.
- C. ekainaren 22an.
- D. irailaren 1ean.



25

29 urte bakarrik bizi izan zen arren, Zhenyik **12 liburu** idatzi zituen astronomiari, matematikari eta poesiari buruz.

3CM4309

Liburu bakoitzak **135 orrialde** bazituen, zenbat orrialde idatzi zituen guztira?



- A. 147
- B. 348
- C. 1620
- D. 3915

26

Zhenyik eguraldiari buruzko datuak ere bildu zituen, bere herrialdeko uholdeak eta lehorreak prebenitzen saiatzeko.

3CM4310

Begiratu zenbat urte igaro diren zenbatzen hasten denetik lehorrea edo uholdea gertatu arte, eta osatu bi serieak.

Uholdeak:
 12 14 16 <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
Lehorreak:
 15 25 35 <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>

Artisautzako lantegia









Kultur astea da, eta La Peña ikastetxean haurrek artisautzako hainbat lantegitan parte hartuko dute: pintura, baratzea, zeramika, fantasiako bitxiak, sukaldaritza, etab. Lantegi bakoitzean puntuak irabaziko dituzte, eta azken egunean tonbolako opariekin trukatu ahal izanen dituzte.



27

3CM4401

Kristinak gozogintzako lantegian izena eman du, eta jakin behar du zer tresnak balio duen kantitate batzuk neurtzeko. **Idatz ezazu X bat kantitate bakoitza neurtzeko balio duen tresnari dagokion laukitxoan.**

Neurtu nahi dugu...		Neurtzeko tresnak			
		 Balantza	 Termometro a	 Metroa	 Kronometro a
Idatzi X bat ilara bakoitzean					
	Arrabolaren luzera.				
	Zenbat denbora behar den pastela egiteko.				
	Madalena baten orea.				
	Labearen tenperatura.				

28

3CM4402

Gozogintzako lantegian 54 gaileta egin dituzte. **Sei partaideen artean banatuko dituzte. Zenbat gaileta tokatuko zaizkio partaide bakoitzari?**

A. 6

B. 7

C. 8

D. 9



29

Gailetak egiteko:

3CM4403

- Ordu erdi behar izan dute prestalanetarako
- Ordu erdi labean

Guztira, zenbat minutu behar izan dituzte gailetak prestatzeko?

A. 30

B. 60


C. 90

D. 120

30

Malika abalorioen lantegian parte hartzen ari da. 7 lepoko eta 9 eskumuturreko eginen dituzte, irudikoak bezalakoak. Lepoko bakoitza egiteko zortzi ale urdin behar dituzte eta eskumuturrekoa egiteko, berriz, bost ale hori. Jakin behar duzu **zenbat ale behar dituzten guztira. Lehenik, egin ezazu biderketa eta, ondoren, batuketa.**

3CM4404



$$7 \times 8 = \underline{\quad\quad} \text{ ale urdin.}$$

$$9 \times 5 = \underline{\quad\quad} \text{ ale hori.}$$

$$\underline{\quad\quad} + \underline{\quad\quad} = \underline{\quad\quad} \text{ ale, guztira.}$$

31

Lucas, Soraya eta Mohamed arte-lantegian aritu dira, eta hainbat irudi geometriko koloreztatu dituzte.

3CM4405


Idatz ezazu irudiaren zer zatiki koloreztatu duen bakoitzak:

	Irudia	Koloreztatutako zatikia
Lucas		$\frac{\square}{\square}$
Soraya		$\frac{\square}{\square}$
Mohamed		$\frac{\square}{\square}$

32

Edortak lorategi eta baratze lantegirako eman du izena. Kalabazin 1, 2 tomate, 2 azenario eta piper 1 bildu ditu eta balantza batean jarri ditu.

3CM4406



Ingura ezazu bildu dituen barazkien masa adierazten duen aukera.

- A. 251 g
- B. 251 kg
- C. 1250 g
- D. 1250 kg

33

Afrikak lantegietan irabazi dituen puntuak trukatu ditu eta pelutxezko hartz bat, argazki-kamera bat eta eraikuntza-joko bat lortu ditu.

3CM4407

Zenbaki hauetatik, zein hurbiltzen da gehien neskak behar izan dituen puntuetara?

- A. 200
- B. 250
- C. 300
- D. 350



Eskerrik asko zure lanagatik! Ongi berrikusi dena proba entregatu baino lehen.